

2013-10-29ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko urriaren hogeita bederatzian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Yosu Yurrita Loitegui, Tomás Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2013-09-24; 2013-10-03).- 2013ko irailaren 24ko ohizko eta 2013ko urriaren 3ko ezohizko saioen akten zirriborroak aurkeztu dira, eta aho batez onartu dira.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2013ko 159. zenbakitik 174. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2014RAKO UDAL ZERGEN ALDAKETEN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkatetzak jakinarazi du komeni dela udaleko hainbat zerga eta tasa aldatzea, onartutako legezko zerga-aldaketetara egokitzeko, hala badagokio, edota udal-baliabideetara eta udal-zerbitzuen kostuetara egokitzeko. Bertako errealitate ekonomikoa kontuan izateari utzi gabe.

Kontuetako, Ogasuneko eta Aurrekontuko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Idazkari kontu-hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa ikusi da, eta zerga arloan indarrean dagoen legediaren arabera erabakiko da, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera hain zuzen ere.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hauxe onartu du :

ERABAKIA.

1.-2014. ekitaldirako Irurako Udaleko Egutegi Fiskala onartzea.

2.-Behin behineko onarpena ematea Irurako Udaleko zerga-ordenantza hauek aldatzeari:

A)Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren zerga-ordenantza aldatzea:

Por parte de la Alcaldía se hace saber la conveniencia de proceder a la modificación de diversos Impuestos y Tasas municipales, de cara a adecuarlos a las modificaciones legales tributarias aprobadas, en su caso, y a los recursos municipales y al costo de los servicios municipales. Sin perjuicio de tener en cuenta la realidad económica existente.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Cuentas, Hacienda y Presupuestos en reunión celebrada el día de hoy.

Visto el informe económico-financiero del Secretario-Interventor y de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente en materia fiscal, en concreto la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO

1º.-Aprobar el Calendario Fiscal de este Ayuntamiento de Irura, para el ejercicio de 2014.

2º.-Aprobar con carácter provisional la Modificación de las siguientes Ordenanzas Fiscales de este Ayuntamiento de Irura:

A)Modificación de la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras:

-Obren aurreko adierazpenaren araudiari egokitzea.

-Adecuación a la legislación sobre declaraciones previas.

-Interes bereziko obrak direnentzat %95 arteko hobaria sartzea.

-Introducción de la bonificación hasta el 95% sobre obras de interés especial.

B) Zerbitzu Publikoak emateagatik eta jarduera administratiboak burutzeagatik ezarritako tasaren gaineko zerga-ordenantza aldatzea:

B) Modificación de la Ordenanza Fiscal de la Tasa por Prestación de Servicios Públicos y realización de Actividades Administrativas:

-Kultur eta kirol zerbitzuak emateagatik tasa:

-Tasa por prestación de servicios culturales y deportivos:

Ikastaroak:

Cursos:

-Pilates: Matrikula (hiru hilekoa) 63,00 €

-Pilates: Matrícula (trimestral) 63,00 €

-Yoga: Matrikula (hiru hilekoa) 105,00 €

-Yoga: Matrícula (trimestral) 105,00 €

-Aerobic: Matrikula (hiru hilekoa) 72,00 €

-Aerobic: Matrícula (trimestral) 72,00 €

-Areto bizikleta: Matrikula (hiru hilekoa) 90,00 €

-Bicicleta salón: Matrícula (trimestral) 90,00 €

-Haurren antzerkia: Matrikula (hiru hilekoa) 40,00€

-Teatro infantil: Matrícula (trimestral) 40,00€

-Zumba: Matrikula (hiru hilekoa) 72,00€

-Zumba: Matrícula (trimestral) 72,00€

-Helduen eskulanak: Matrikula (hiru hilekoa) 75,00€

-Manualidades adultos: Matrícula (trimestral) 75,00€

C) Aldaketak hauek 2014ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean.

C) Estas modificaciones entrarán en vigor al 1 de enero de 2014.

Hirugarrena.- Akordioa eta espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki-taulan argitaratzea. Izapidetzerako (tramiterako), arau hauek beteko dira:

Tercero.- Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzaitzan egongo da.

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Erreklamazioak aztertzeke eta

b) Plazo para examinar y

aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, eta Udal-bulegoko lanorduetan.

c) Erreklamazioak uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek aurkeztu ahal izango dituzte.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrear edo Administrazio Prozeduraren Legearen 38. artikulua jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa Udalbatzaren aurrera eraman beharko dute.

Laugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Akordioa izapide-egintza bat da.

presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 38 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presenta la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Cuarto.- En el caso de que no presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es un acto de trámite.

LAUGARREN GAIA

2013KO AURREKONTUAREN 1. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honen 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren 1. kreditu aldaketaren berri eman du alkateak.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusi da.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administraziooko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Eta hori ikusita, Udalbatzak hauxe onartu du:

ERABAKIA:

Udal honen 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren 1. kreditu aldaketaren berri eman dute.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administraziooko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Lehena.- Behin-behineko izaeraz onartzea 1. kreditu aldaketaren espedientea, udal honen 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren barruan. Honela laburbilduko litzateke kapituluka:

- A) Gastuak handitzea: 92.300€
- 1. kapitulua.- Pertsonal gastuak: 20.800€
 - 2. kapitulua.- Gastu Arruntak: 21.000€
 - 6. kapitulua.- Inbertsioak: 50.500€

- B) Finantzaketa: 92.300€
- B.1.- Sarrerak handitzea: 42.000€
 - B.2.- 2012ko diruzaintzako soberakina 50.300€
 - 7. kapitulua.- Kapital transferentzia 42.000€

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez, erreklamazioak aurkez ditzaten. Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

BOSGARREN GAIA

JARDUEREN ESKU-HARTZEARI, KONTROLARI ETA ONDORENGO EGIAZTATZEARI BURUZKO TOKIKO ORDENANTZAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Europar Batasuneko legediak honakoa ezarri die bere Estatu kideei: zerbitzuak jartzeko eta emateko askatasunari jarritako arrazoirik gabeko lege oztopo eta hesi administratibo oro kentzeko obligazioa. Eta printzipio orokor bat finkatu du: zerbitzu-jarduera baterako aukera izatea eta horretan aritu ahal izatea ez dira baimen araubide baten mende egongo, aparteko kasuetan izan ezik.	La legislación de la Unión Europea ha impuesto a sus Estados miembros la obligación de eliminar todas trabas jurídicas y barreras administrativas injustificadas a la libertad de establecimiento y de prestación de servicios, estableciendo un principio general: el acceso a una actividad de servicios y su ejercicio no estarán sujetos a un régimen de autorización, salvo casos excepcionales.
---	---

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak bere legez xedapenak egokitu dizkio aipatutako legediari, jarduera sailkatuen arloan eta beste arlo batzuetan.	En este sentido la Comunidad Autónoma Vasca ha procedido a la adaptación de sus disposiciones legales a dicha legislación en materia de actividades clasificadas y otras.
---	---

Ondorioz, helburu berberarekin, beharrezkoak diren tokiko xedapenak ere onartzea dagokio.

Ogasun, Kontu eta Administrazio Kontu eta Batzorde Informatiboak aldeko erabakia hartu du, gaur egindako bileran.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA.

1.-Jardueren Esku-hartzeari, Kontrolari eta Ondorengo Egiaztatzeari buruzko Udal Ordenantzari hasierako onarpena ematea.

2.-Espedientea jendaurrean jartzea eta interesatuei audientzia ematea, 30 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz.

3.-Ez bada alegaziorik aurkezten, espedientea behin betiko onartzen dela iritziko zaio, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean behin betiko testua argitaratuko da.

En consecuencia procede adoptar, también, las disposiciones locales necesarias con dicha finalidad.

Esta propuesta ha sido informada favorable por la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas y Administración en sesión celebrada hoy.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO

1º.-Aprobar inicialmente la Ordenanza Local de Intervención, Control y Verificación posterior de Actividades.

2º.-Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados, mediante el periodo de 30 días hábiles, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3º.-En el caso de que no se presente ninguna se entenderá aprobado definitivamente el expediente y se procederá a la publicación del texto definitivo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

SEIGARREN GAIA

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2008ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Irurako Udaltzako etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzea erabaki zuen, eta Baldintza Ekonomiko eta Administrazioen Agiriak eta Baldintza Tekniko Partikularraren agiriak onartu zituen.

Ondoren, 2009ko uztailaren 17ko 106/09 Alkate-dekretuaren bidez, kontratua Ilarki enpresari behin betiko esleitzeko erabakia hartu zen.

Baina kontratua 2013ko irailaren 1ean amaitu da, 2 urteko luzapena erabaki ondoren.

Baldintza Plegu Ekonomiko eta Administrazioen arabera, 3. klausula hain zuzen ere, Udalak komenigarritzat joz gero, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du, harik eta behar bezala esleitutako kontratu berria hasi arte, gehienez ere sei hilabetez, kontratua amaitzeko finkatu den egunetik kontatzen hasita. Beraz, eta kontratistarekin adostuta, kontratua jarraitzeko proposamena egin da.

Beste aldetik, baldintza agiriaren arabera, kontratuaren prezioa berrikus daiteke Euskal Herriko KPIren arabera, INEk argitaratzen duena, eta ez du gaindituko izandako aldaketaren %85a.

Hori horrela, eta dagozkion txostenak ikusita, Ogasun, Kontu eta Administrazioeko Batzorde Informatiboak aldeko erabakia hartu du, gaur egindako bileran.

Hori ikusita, Udaltzako, aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA

1.- Ilarki enpresarekin etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua luzatzea esleitutako datorren kontratu berria hasi arte, eta gehienez ere 2014ko martxoaren 1a arte.

2.- 2013ko irailetik aurrera ordu arruntaren prezioa 19,18 € izango da. Prezio honen barruan egongo dira kontratuaren gastu guztiak eta zergak.

ZAZPIGARREN GAIA

JAKIEN BANKUAREKIN HITZARMENA SINATZEKO, ANOETAKO UDALAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEAN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Gaur egungo krisi egoera honek zenbait familian egoera jasangaitza ekarri du, zenbait kasutan sarrera eta oinarriko gastuen (etxebizitza) desorekak duintasunezko gutxienekotarako ez du ematen, eta laguntzak jasotzeko aukerarik ere ez, sarrerak direla eta. Gizarte Zerbitzuetatik beti defendatu badugu ere, asistentzialismoa gainditurik, norberak jakiak erosteko baliabideak izan behar dituela (horretarako laguntza behar badu ere), zuzenean erakundeetatik eman gabe, une honetan ezinezkoa da oinarri hori aurrera eramatea, horregatik egoera horiei erantzun bat eman behar zaiela uste dugu.

Anoetako Udalarekin egoera aztertuta, eta Jakien Bankuarekin harremanetan jarri ondoren, akordioa lortu da.

Gaia aztertu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak, 2013ko urriaren 10ean eginiko bileran, aldeko proposamena egitea onartu du. Hori ikusita Udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA:

1.- 2014ko urtarrilean hasteko, Jakien Bankuarekin hitzarmena sinatzea, hilero elikagai loteak ekartzeko, herrian beharreen daudenei gauzak errazteko. Ildo horretan, baimena ematea alkateari hitzarmena sinatzeko Irurako Udalaren izenean.

2.- Udal gizarte langileek hilero zerrendak prestatuko dituzte, zenbat onuradun diren zehaztuz.

3.- Txandaka, Anoeta eta Irurako udal langileak Jakien Bankuak duen almazenera joango dira eta Anoetako Udalaren lokal batean utziko dituzte jakiak.

4.- Txandaka, Anoetako eta Irurako gizarte langileak eta beren herriko onuradun bat arduratuko dira loteak antolatu eta banatzeaz.

5.- Lan horretaz arduratuko den onuradun horri 50€ ematea konpentsazio gisa. Irurako udalari 6 onuradun dagozkio (ahal dela desberdinak), beraz, 300 € onartzea 2014 urterako.

ZORTZIGARREN GAIA

ANOETA, HERNIALDE ETA IRURAKO UDALEN ARTEAN HITZARMENA SINATZEKO GIZARTE ZERBITZUETAKO PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Hitzarmen hau aurkeztu da: Anoeta, Irura eta Hernialdeko udalek oinarritzko gizarte zerbitzuen funtzionamendurako atal batzuk elkarrekin burutzeko konpromisoa.

Ogasun, Kontu eta Administrazioako Batzorde Informatiboak aldeko erabakia hartu du, gaur egindako bileran.

Hori ikusita, Udalbatzak hau erabaki du aho batez:

Lehenengoa.- Aipatutako hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Irurako Udaleko Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkateari baimena ematea hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko.

BEDERATZIGARREN GAIA

“EPAIKETA POLITIKO GEHIAGORIK EZ” DELAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“EPAIKETA POLITIKO GEHIAGORIK EZ!

Datorren Urriaren 14an eta 17an hamarnaka Euskal Herritarren aurkako epaiketa hasten da Espainiako Entzutegi Nazionalean. Azken urteetan zain egon ondoren, batzuen kasuan gainera hamar urte baino gehiago, epaiketa azken urratsera heldu da.

Urteetako ibilbideak argi eta garbi erakutsi du, salbuespeneko legeriaren itzalean, lan politikoa egiten ari ziren euskal herritarrak zigortu dituztela. Ehunka izan dira herri honetan, hauteskundeetan parte hartu nahi izateagatik, herri proiektuak aurrera ateratzen lana egiteagatik, sektore desberdinen kezka bere egin eta politikoki erantzuteagatik auziperatu eta kartzelaratu dituztenak.

Euskal Herrian, konponbide eta bake haizea indartsu dabilen honetan, iraganeko egoeretara itzultzerik ez du onartzen gizarteak. Sufrimendu fasea gainditu eta elkarrizketa, akordioa eta aukera politiko guztiekiko errespetua oinarri izango duen egoera behar dugu. Eta kontrako norabidean ematen diren urratsak baztertu egin behar direla argia da.

Datorren urri honetarako aurreikusita dauden bi epaiketa hauek, eta jarraian burutuko direnak testuinguru berean emango direla kontutan hartuta, garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide baketsua blokeatu asmoz.

Hau guztia kontutan hartuta, Udal honek honako erabaki hau hartu du.

- ^ Ez daitezela epaiketa politiko gehiagorik egin;
- ^ Eskandaluzko instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketa guztiak artxiba daitezela;
- ^ Prozedura judizial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desager dadila;
- ^ Aniztasun politikoa eta elkartze, adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezela;
- ^ Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar ditzagula. “”

Eta Udalbatzak, aho batez, onartu egin du.

HAMARGARREN GAIA
LEHIBERRI ZENTROAREN ALDEKO MOZIOA ONARTZEA, HALA
BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“LEHIBERRI ZENTROAREN ALDEKO MOZIOA:

Tolosaldea Garatzeneko administrazio kontseiluak ondorengo mozioa onartzea eskatzen du:

LEHIBERRI, Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Zentroak martxoaren 21ean zabaldu zituen bere atak.

Zentro honek eskualdeko eragile sozioekonomikoen erreferentzia gune izan nahi du: batetik, agente ezberdinen artean burutzen diren arlo guztietako proiektuak laguntzeko gune bat; eta bestetik, egun eskualdez kanpo eskaintzen diren baliabideak (formatiboak, teknologikoak,...) eskualdera erakartzeko balioko duen antena bat.

Gainera, enpresen garapenerako bideratuta dauden ekimenen euskarri izateaz gain, ondorengo hauetarako ere lekua izan beharko du: enpresa eta lanbide eskolen komuneko proiektuak, enpresentzako informazioa eta sentsibilizazio ekintzak, eta ekintzailetasuna eta barne-ekintzailetasuna sustatzeko moduko instalakuntzak, internazionalizazioaren sustapena eta hartarako prestakuntza, kudeaketaren teknifikazioa, langabetuak laneratzeko sarbide, eta abar luze bat.

Horrela, LEHIBERRI Tolosaldea Garatzenek sustatutako ekintza eta ekimen guztien euskarri izateaz gain, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak edota SPRIk enpresen eta industriaren garapenaren arloan dituzten eskumenen inguruan sustatutako programen euskarri ere da.

Lehiberri Zentroa, azken finean, Tolosaldean azken hamarkadan alor publikotik sustatu den proiektu estrategikorik garrantzitsuena da. Horren adierazle dira, erakunde publiko desberdinetatik proiektuak jaso dituen babesak eta laguntza. Horren isla, eskualdeko udal, Gipuzkoako Batzar Nagusi zein Eusko Legebiltzarrak Madrilgo gobernutik hitzartuta zegoen milioi euroko diru laguntza ez etortzean eginiko eskaera eta Tolosaldea Garatzen emaniko babesak. Mozio horretako puntu batek horrela zioelarik hitzez hitz: “IRURA UDALA erakundeak, Tolosaldea Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraiatzeko du eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.”

Helburua, enplegua sortzetik haratago, eskualdeko biztanleen bizi kalitatea hobetzen laguntzea da horretarako eskualdeko politika integral eta bateratu bat sustatzen. Eskualdeko eragile guztiak, enpresa, langile, sindikatu, hezkuntza, udal zein bestelako administrazioen arteko lan komuna eta ildo bateratua bideratzeko tresna izan nahi duelarik.

Proiektu honen aurrekontua guztira 2.335.542 eurokoa izan da.

Finantzaziorik dagokionez hauek izan dira orain arte proiektuaren sustatzaileak:

- **Eskualdeko Udalak** 810.542 euro (horietatik 525.000 euro erakunde finantzarioekin hitzartutako kreditu bidez).
- **Espainiako Gobernua.** Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak: 1.000.000 euro
- **Gipuzkoako Foru Aldundiak:** 525.000 euro.

Kontuan izan behar da lehiakortasun ekonomikoaren sustapenaren alorrean EAEn erakunde eskumenduna **Eusko Jaurlaritza** dela, eta proiektuaren hasieratik aitortu dela bertatik Euskadiko Zientzia eta Teknologia Plangintzan marraztutako estrategiarekin bat datorrela Lehiberri Proiektua eta Zentroa. Honenbestez, **ezinbestekoa jotzen dugu, gainerako udal, probintzia eta estatu mailako erakunde publiko guztiek egin duten moduan, Eusko Jaurlaritzak ere Lehiberri Proiektua babestea eta bere ibilbidea behar den erritmoan egitea ahalbidetuko duten baliabide ekonomikoak bermatzea.**

Honela bakarrik lortuko da krisialdi ingurumari honetan eskualderako hil ala bizikoa den azpiegitura eta baliabide honek bere funtzioa behar bezala betetzea.

Horregatik, IRURAKO Udalak ondorengoa eskatzen du:

- Lehiberri eskualdearen garapenerako tresna dela aitortu eta alderdi politikoen arteko ika-mikatik aldentzea.
- Eusko Jaurlaritzari Lehiberri proiektuaz bat egin eta duen finantziazio beharraz ohartuta laguntza ekonomikoa ematea.
- Mozio hau, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Tolosaldea Garatzena igortzea.”

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, onartu egin du.

HAMAIKAGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIATZATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA